



EBAZPENA, 2025EKO URTARRILAREN 24KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZAREN 2024KO ABUZTUAREN 31EKO EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARA EMATEN BAITIRA HEZKUNTZA BEREZIKO LAN-LEGEPEKO PERTSONALEN UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ORDEZKAPENETARAKO IZANGAIEN ZERRENDAK, 2019KO AZAROAREN 15ETIK 2024KO ABUZTUAREN 31ARTE EGINDAKO ZERRENDA-IREKIEREN DEIALDIEN ONDORIOZ IREKITA EGONGO DIRENAK

2019ko azaroaren 15ean Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonalen ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendak ireki ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapen-beharrak behar bezala bete zitezten, 2020ko otsailaren 7ko Ebazpenaren bidez erabaki zen zerrenda horiek irekita mantentzea, aipatutako Ebazpenaren I. eta II. eranskinetan adierazitako baldintzen arabera.

Dauden ordezkapen-beharrak bermatzeko, zerrenda horiek irekita mantentzen dira, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren 2024ko abuztuaren 31ko Ebazpenaren bidez, irekita mantentzen diren zerrendak argitaratu zen I. eranskinean (fisioterapeuta, hezkuntza-laguntzako espezialista, zeinu-mintzairaren interpretea eta terapeuta okupazionala), zerrendetara sartzeko aukera ematen duten titulazioak adierazita eta II. eranskinean, berriz, zerrenda horietan sartzeko baldintzak argitaratu ziren.

Kontuan hartuta Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen negoziazio-mahaiaren 2024ko abenduaren 19ko Erabakiaren bidez aldatu egin zela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboari buruzko akordioa, zeinu-hizkuntzako interpreteen zerrendetan sartzeko baldintza gisa eskatzen diren titulazioei dagokienez, Espainiako eta Gorren Komunitateko Zeinu-hizkuntzako Gradua gehituz, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko euskarazko C1 mailaren pareko titulazioa edo ziurtagiria izatearekin batera.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldatzea Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren 2024ko abuztuaren 31eko Ebazpenaren I. eranskina. Ebazpen horren bidez, argitara ematen dira argitara ematen baitira Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonalen unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ordezkapenetarako izangaien zerrendak, 2019ko azaroaren 15etik 2024ko abuztuaren 31arte egindako zerrenda-irekieren deialdien ondorioz irekita egongo direnak. Honela geratzen da:



I. ERANSKINA

IREKITA MANTENTZEN DIREN ZERRENDAK 2024/2025 IKASTURTEA

HEZKUNTZA BEREZIKO LAN-LEGEPEKO LANGILERIA		
KATEGORIAK	KODE ETA KATEGORIEN ZERRENDAK	HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
Fisioterapeuta (Fisioterapiari diplomatua edo Gradua) (*)	79-5103	HLEA edo goragokoa
Hezkuntza Laguntzako espezialista (Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria, edo horien baliokideak)	79-5113	HLEA edo goragokoa
Zeinu-mintzairaren interpretea (Zeinu-mintzairaren interpreteko goi mailako teknikaria edo Komunikazio-bitartekotzako goi-mailako teknikaria)	79-5114	HLEA edo goragokoa
Zeinu-hizkuntzako interpretea (Espainiako eta Gorren Komunitateko zeinu-hizkuntzako Gradua)	79-5114	C1 edo goragokoa
Okupazio Terapeuta (Terapia Okupazionalerako diplomatua edo Gradua)	79-5959	HLEA edo goragokoa
(*)Fisioterapeutaren kategoriara sartu nahi duten pertsonen elkargokide izan beharko dute kontratazioaren unean.		

Bigarrena.- Aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 31ko Ebazpenaren II. eranskineko «Baldintzaren informazioa» ataleko «Titulazioa» izeneko 1. azpiatala. Ebazpen horren bidez, argitara ematen dira Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonalen unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ordezkapenatarako izangaien zerrendak, 2019ko azaroaren 15etik 2024ko abuztuaren 31arte egindako zerrenda-irekieren deialdien ondorioz irekita egongo direnak. Honela geratzen da:

"1.- Titulazioa:



Kategoria bakoitzerako eskatutako titulazioa egiaztatu beharko da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako Hitzarmen kolektiboaren III. eranskinean (2004-06-17ko EHAA) eta hori aldatzen duen Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen negoziazio-mahaiaren 2024ko abenduaren 19ko Akordioan adierazitakoaren arabera."

Hirugarrena.- Aldaketa honek 2024ko abenduaren 20tik aurrera izango ditu ondorioak.

UNAI NIETO MARIJUAN

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 24a.